

**ORDIZIAREN 750. URTEURRENA**

2018-07-28 Ordizia 28-07-2018

Lehendakariaren hitzaldia – Discurso del Lehendakari

Ordizia hiribilduaren alkate jauna, udalbatza osatzen duzuen zinegotzi taldeetako buru zaretenok eta zinegotzi guztiok, Eusko Legebiltzar buru andrea eta zaudeten herri agintari eta herri ordezkari guztiok, eta baita gizataldeetako, ordezkari nagusiok, ordiziarrok, jaun andreok, egun on.

Zorionak eta eskerrik asko, bai nire izenean bai Eusko Jaurlaritzaren izenean, zuen gonbidapenagatik. Ohore bat da, zuekin batera, Ordiziaren 750garren urteurrena ospatzea. Hemen izan garen bakoitzean ordiziarrok familia handi bat osatzen duzuela erakutsi diguzue eta etxeko bezala hartu gaituzue. Eskerrik asko!

Urteurrena betetzea aukera bat da, momentu batez gelditzeko eta hausnartzeko aukera, hain zuzen ere. Iragana hobeto ezagutzeko eta etorkizunari begi berriekin begiratzeko. Nire ikuspegia da Ordiziak bere historian oinarri sendoak dituela etorkizun oparo eta erakargarri bat eraikitzen jarraitzeko.

Asko dira Ordiziaren eta ordiziarren erreferenteak.

Ordizia merkatua da. Horrek esan nahi du lehen sektorea bizirik mantentzen dela. Merkatua inguruko herrien arnas gunea izan da, produktu berriak ezagutzeko eta harremanak sendotzeko lekua. Nekazaritzaren lanari esker ingurugiro aparta dugu, zero kilometroko elikagaiak eta merkatuak eta bertako merkataritzak herriari ematen dion bizitza baloratzen dugu.

Ordizia industria da. Horrek esan nahi du bigarren sektorea lehiakorra dela. Industria Ordiziaren historiari lotuta dago. Lankidetzan, teknologian, kalitatean, berrikuntzan eta orain “4.0 industrian”, beti izan zarete aitzindariak. Hemen enpresa txiki, ertain eta handi martxan jartzeko ahalmena erakutsi duzue. Hemen enpresa munduarekin gertutasuna eta lankidetzak erakutsi duzue. Baita nazioartekotzean ere, Urdanetaren izpirituari jarraibidea emanez.

Ordizia goi mailako hezkuntza, kultura, euskara, musika, kirola da. Horrek esan nahi du hirugarren sektorea ere eraginkorra dela. Pertsona da herri sendo baten ardatza eta elkarbizitza elkarrekin jorratutako balioetan eusten da.

Herri bizia, langilea, aitzindaria, balio sakonetan sustraitua, mundu zabalera irekia, kulturen eta lankidetzan sinesten duena. **Hauek dira Ordiziaren berezko nortasunaren oinarriak.** Hauek dira ere ordiziar guztiontzat etorkizun hobeago bat jorratzeko gakoak.

Gaur, elkarrekin eta itzaropen berriarekin, azken 750 urteko ibilbidea oroitzen dugunean, jaso ezazue mundu zabalean bizi garen euskaldun guztion aitormena eta esker ona. Alkate eta ordiziar guztiok, arro egon zaitezkete herri honekin.

Zorionak Ordizia eta urte askotarako!